



FUNTZIONAMENDU ARAUAK Ospitalizazioko Unitatea – ORL

Dei egiteko beharrea bazaude, erabili gelako txirrria

MEDIKUAREN BISITA / FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA

- Eskatu laguntza behar duzun guztietan.
- Egunero pijama edo ohe-atorra jasoko duzu. Norberaren garbitasunerako, bainugela bat dago logelan, dutxa eta guzti.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNARI eusten.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurduinak edo lurgabeak.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingresaturik dagoen inorri buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalak bere gain hartuko.

EBAKUNTZA EGIN BEHAR IZANEZ GERO, JAKIN BEHARREKOA



- Sendagile hauek egingo dizute ebakuntza: _____
- Interbentzioaren ondoren: Zirujauaren informazioa emango dizu 2. solairuko operazio-geletako sarreran.
- Interbentzioa urgentea bada: 1. solairuko operazio-gelako sarreran emango da informazioa.
- Anestesia ondoko bizkorketa 2. solairuan egingo da (ABU).

MEDIKUAREN IKUSTALDIA



- Igandean izan ezik, egunero. 10:15etik 12:00etara, gutxi gorabehera.
- Bisita hasi baino lehen MEGAFONIAZ DEITUKO DIZUETE. Bisita bukatu arte, laguntzaileek unitatetik kanpo itxaron behar dute, igogailuen atarian.
- Bisitan zehar medikuak zure egoeraren berri emango du.

FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIO MEDIKOA

- Egunero: Medikuaren bisita bukatzen denean, Unitateko ORLko sendaketa-gelan.

OTORDUAK



- | | |
|----------|----------|
| 9:30ean | Gosaria |
| 13:30ean | Bazkaria |
| 17:30ean | Merienda |
| 20:30ean | Afaria |

BISITAK

- 14:00etatik 21:00etara.
 - **Pazienteko 2 pertsona, gehienez.**
- Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke

BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Ospitalean sartu izanaren **egiaztagiria** behe solairuko harreran emango dizute (datu gehiago behar baduzu, jar zaitez harremanetan pazientearen ardura duen medikuarekin).



TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000882.

Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.



Telebista-zerbitzua ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daitezke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora. Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke.



KAFETEGIA **Ordutegia: 8:00etatik 22:00etara.**

Kafetegia erdisotoan dago.

Solairu batzuetan kafe eta freskagarri makinak daude, igogailuak dauden hallean, hain zuzen



ALTA hartzeko egunean, gela arratseko 15:00ak baino lehen utzi beharko duzu.

Ospitalean ISILTASUNA beharrezkoa dela gogorazten da.

Altaren egunean komenigarria da gela uztea txostena jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.



Laguntza erlijiosa eta espirituala:

- Ospitaleak zerbitzu erlijioso katolikoa du Kapean (1. solairuan). **Erlijio-laguntzako ordutegi berria** 9etatik 17etara izango da egunero.
- Beste erlijio batzuetako pazienteek eta senideek laguntza eskatu diezaiokete euren arimako maisuari.

PAZIENTEAREN ZAKO ETA ERABILTZAILEAREN ZAKO ARRETA ZERBITZUA (PEAZ). Zerbitzu horren beharra izanez gero, Unitateko gainbegiralearen bidez eska dezakezu. **Ordutegia:** 9:00etatik 14:30era (astelehenetik ostegunera).